

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Guardiako Udal Musika Eskolako matrikulen tasak arautzen dituen zerga ordenantzari

Guardiako Udalak, 2021eko azaroaren 11ko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Udal Musika Eskolako matrikulen tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketari.

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2021eko azaroaren 24an 134. zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean jarri ostean; hortaz, behin betiko onetsita geratzen da, honako testu honekin:

GUARDIAKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO MATRIKULENTASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

ZERGA EGITATEA

1. artikulua

Ordenantza honen zerga egitatea Guardiako Udal Musika Eskolan matrikulatzea da.

SUBJEKTU PASIBOAK

2. artikulua

Tasa honen subjektu pasiboak izango dira, zergadun gisa, nortasun juridikorik ez duten eta unitate ekonomikoa eta ondare bereizia osatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak, udalaren musika irakaskuntza zerbitzua eskatzen badute edo zerbitzu horren onurak jasotzen badituzte.

ZERGA OINARRIA

3. artikulua

Ikasleek Udal Musika Eskolara joateko xede duten ikastaroa izango da zerga oinarria.

TARIFAK

4. artikulua

Aplikatu beharreko tarifak erantsitako eranskinean agertzen dira, eta indarrean egongo dira udalbatzak tarifa aldatzea erabaki arte.

ZERGA KUOTA

5. artikulua

Zerga honen kuota kalkulatzeko, zerga oinarriari karga tasa aplikatu behar zaio.

SORTZAPENA ETA DIRUBILKETA

6. artikulua

Udal Musika Eskolan subjektu pasiboa onartzen den egunean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, bai eta eskolan egoten den urteetan ere.

7. artikulua

Kuotak honela ordainduko dira:

Ordaintzeko era:

Matrikula osoaren batura zati berdinetan (1, 2 edo 3) zatitzen da.

1. hiruhilekoa (ikasturtearen hasieran).
2. hiruhilekoa (abenduaren 31 baino lehen).
3. hiruhilekoa (apirilaren 1a baino lehen).

KUDEAKETA ARAUAK

8. artikulua

Eskolan sartzeko eskaerak idatziz aurkeztuko dira Udalean, Udalaren Musika Eskolarako Arautegiarekin bat etorritz.

9. artikulua

Erabiltzailea izango da eragindako kalteen erantzulea, eta Udalaren ondare lokalak eta tresnak behar bezala erabiltzen direla zaindu beharko du.

SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

10. artikulua

1. Ez da salbuespenik aitortuko ordainarazte honen ordainketan.
2. Familia unitate berean kide bat baino gehiago matrikulatuta dituzten ikasleen kasuan, matrikularen ehuneko 10eko hobaria aplikatuko zaio bigarren kideari.

ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

11. artikulua

Honako hauek joko dira iruzur egintzatzat:

- a) Kuotak ordaintzeko betebeharrak ez betetzea; kuota ordaingabeak metatuz gero, ikasleak Udaleko Musika Eskolatik kanporatuko lirateke.
- b) Udalaren jabetzako ondasun higiezinak eta higigarriak, Udalaren Musika Eskolaren zerbitzukoak, zabarkeriaz edo behar ez bezala erabiltzea.

12. artikulua

Ordenantza hau aurreikusitako izapideak egin ondoren sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

MATRIKULEN ORDAINKETA

Tarifak:

Musika hizkuntza: 60,00 euro.

Musika hastapena: 50,00 euro.

Kantua: 35,00 euro.

Musika tresna: 60,00 euro.

Musika tresnen taldea: 25,00 euro.

Gaita: 60,00 euro.

(tarifak urtekoak dira).

Guardia, 2021eko abenduaren 22a

Alkatea

LUCIO CASTAÑEDA MARTINEZ DE TREVIÑO